

AUTOEBALUAZIO PROZEDURAK: EBALUAZIO JARRAIA

ERIZAINNTZA OTORRINOLARINGOLOGIKOA

1. Kasu klinikoa. Erdiko belarriaren patologia:

Amak bere urte beteko haurra oso urduri dagoela nabaritzen du; umeak behin baino gehiagotan ezkerreko belarria hartzen du eta ez du bazkaldu nahi. Amak termometroa jartzen dio baina ez dauka sukarririk, febríkula baizik ($37,7^{\circ}$). Amak hau ikusita etxean uztea erabakitzen du eta ez du haurtzaindegira eramaten. Orduak pasa ahala haurra gero eta urduriago jartzen da eta aurpegiko gorritasuna nabarmena bihurtzen da. Amak berriro ere tenperatura hartzen dio eta orain sukarra dauka ($38,6^{\circ}$). Orduan, pediatriari zita bat eskatzen dio.

Pediatriaren kontsultan haurrak ez dio uzten negar egiteari eta muki berdeak ditu. Pediatriak otoskopia egin ostean amari mintz tinpanikoa gorri duela eta mukiak pilatuta dituela erdiko belarrarian esaten dio.

Galderak:

1. Zeintzuk dira erdiko otitisaren arrisku faktoreak?
2. Erdiko otitisaren adierazpen klinikoak eta haurrak adierazten dituenak berdinak al dira?
3. Zeintzuk dira erdiko otitisaren konplikazioak?
4. Zein entzumen froga egin behar zaio entzumen gaitasuna neurtzeko?

2. Kasu klinikoa. Laringea eta laringearen patologia:

Otorrinolaringologiako ospitalizazio zerbitzuan egiten duzu lan eta 67 urteko gizon bat zure ardurapean dago; daukan laringearen tumore subglotikoaren ondorioz trakeotomia osoa egin behar izan diote.

Txirrinari da jotzen eta bere gelara joaten zara, gizona aurkitzen duzu eskuak bere lepoan jarrita (itotzen ari dela erakusten dizu).

Galderak:

1. Zein gailu motak izan ditzake trakeostomian jarrita?
2. Aipatu gailu hauek dituzten osagaiak.
3. Tapoi bat duela igarri duzu. Zein prozedura egingo zenuke?
4. Azaldu aurreko arazoa ebazteko erizaintza-prozedura.

3. Kasu klinikoa. Barneko belarriaren patologia:

Larrialdi zerbitzuan zaude lanean eta Meniere gaixotasuna diagnostikoa duen zorabiatutako 40 urteko emakume baten balorazioa egiten ari zara.

Adierazpen klinikoen artean akufenok dituela dio, hipoakusia eta krisialdi neurovegetatiboa ere agertzen dira. Paziente honek bertigoa dauka.

Galderak:

1. Zein bertigo mota dauka zure pazienteak?
2. Bertigoa diagnostikatzeko proba bestibularrak erabiltzen dira, aipatu 3. Bertigoa diagnostikatzeko proba bestibularrak erabiltzen dira, aipatu zeintzuk dira. Deskribatu bakoitza.

Erantzunak:

1. Kasu klinikoa:

1. Zeintzuk dira erdiko otitisaren arrisku faktoreak?

Erdiko otitisaren arrisku faktoreen artean honako hauek daude:

- Ura belarrarian sartzea: bainuan, igerilekuetan, hondartzan.
- Alergenoak.
- Erdiko otitisa sendatzeko erabiltzen diren antibiotikoen aurrean erresistentzia garatzea.
- Erdiko otitis kronikoak.
- Katarroak eta gripeak.

2. Erdiko otitisaren adierazpen klinikoak eta haurrak adierazten dituenak berdinak dira?

Bai, baina haurra oso txikia denez, ezin du klinika kontatu. Sintomatologiaren artean, honako sintomak deskribatu ahal dira:

- Infekzioaren sintomak: sukarra, min handia, muki berdeak eta usain txarrekoak.
- Hipoakusia edo entzumen gutxipen (partziala gehienetan).
- Akufenoak edo soinu subjektiboak.
- Bertigoak.
- Jariakinak edo mukiak mintz tinpanikoaren atzean pilatuta.
- Otorrea (eboluzioaren arabera).

3. Zeintzuk dira erdiko otitisaren konplikazioak?

Erdiko otitisaren konplikazioak, nagusiki, bi dira: alde batetik, erdiko otitisaren kronikotasuna; bestetik, mastoiditisa eta bere ondorioak (meningitisak, hipoakusia edo kofosisa).

4. Ze entzumen froga egin behar zaio entzumen gaitasuna neurtzeko?

- Audiometria (haurrarentzako egokituta).
- Murmurio testa.

2. Kasu klinikoa:

1. Zein gailu motak izan ditzake trakeostomian jarrita?
 - Plastikozko edo zilarrezko kanula.
2. Aipatu gailu hauek dituzten osagaiak.
 - Kanula, endokanula eta mandrila.
3. Tapoi bat duela igarri duzu. Zein prozedura egingo zenuke?
 - Aspirazioa.
4. Azaldu aurreko arazoa ebazteko erizaintza-prozedura.
 1. Endokanula atera.
 2. Zunda aspirazio sistemari konektatu eta kanulatik sartu baino lehenago tolestu edo xurgapena eten, zunda sartzerakoan ez da aspiraziorik egin behar.
 3. Aspirazioak 5-10 segundo iraun behar ditu, ez gehiago hipoxia arriskuagatik.
 4. Zunda ateratzerakoan mugimendu espiralak egin behar dira aspirazioa mantenduz.

3. Kasu klinikoa:

1. Zein bertigo mota dauka zure pazienteak?
 - a. Periferikoa
2. Bertigoa diagnostikatzeko proba bestibularrak erabiltzen dira, aipatu zeintzuk dira. Deskribatu bakoitza.
 - a. BARANY-REN PROBA
 - a. <https://www.youtube.com/embed/fKVfvVB1YpM>
 - b. ROMBERG-EN PROBA
<https://www.youtube.com/embed/wBF2BYhxGg>
 - c. BABINSKY-WEIL-EN PROBA
 - a. <https://www.youtube.com/embed/Yr2EIl1kTBc>
 - d. UNTERBERGER-EN PROBA
<https://www.youtube.com/embed/KHxkUIfnz78>